

Txosnetarako hizkuntz irizpideak

1. Txosnetako **idatzizko elementu guztiak** (prezioak, oharrak, kartelak eta idatzizko beste edozein elementu) **euskaraz** egongo dira. Bi hizkuntzetan egonez gero, euskarari emango zaio lehentasuna, testuaren barruan duen egoera lehenetsita: euskara ezkerraldean edo goialdean kokatuko da.

Euskarazko terminologia gaztelaniazkoaren oso antzekoa denean edota gizartean oso errotuta dagoenean (prezioa, botila, ura...), euskaraz bakarrik erabiltzea gomendatzen da.

2. **Arreta ematen duten pertsona guztiak elebidunak** izatea gomendatzen da, eta txanda bakoitzean gutxienez pertsona euskaldun bat izango dela bermatuko da. Gainera, **txanda jendetsuenetan**, artatzen duten pertsonen **herena euskaldunak** izango dira.

3. **Agurrak eta lehen hitzak euskaraz** izango dira beti, eta artatzen diren lagunak zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta gehiago erabiliko dugu euskara, agurrera mugatu gabe.

4. **Musika** nagusiki **euskalduna** izango da, eta inoiz ez guztizkoaren % 65 baino txikiagoa, ordutegi osoan zehar proportzioa mantenduz.

5. **Megafoniaz transmititzen den informazio guztia gutxienez euskaraz** emango da, eta elebitan denean lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaniaz.

6. Txosnetako arduradunek **ekitaldi edo jarduerarik antolatzen badute**, **gutxienez euskaraz aurkeztuko dira**, elebitan izatekotan euskarari lehentasuna emango zaiolarik. Nolanahi ere, jarduera horiek **adingabeei zuzenduta** badaude, **euskara hutsean** dinamizatuko dira.

GORA

aiaraldeko

jai euskaldunak!